

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Hezkuntza Departamentuak Haur eta Lehen Hezkuntzan aurrez izena emateko epearen berrikuntzak aurkeztu ditu 2017-18 ikasturterako

Etxea ikastetxetik hurbil egotea lehenetsiko da, ikastetxe gehiago sartu ahalko dira Atzerriko Hizkuntzetan Ikasteko Programan eta zonalde ez euskaldunetan D ereduaren eskaintza zehazten da

Astelehena, 2017.eko urtarrilak 16

Hezkuntzako kontseilari Jose Luis Mendozak eta Hezkuntzako zuzendari nagusi Roberto Perezek Haur eta Lehen Hezkuntzan aurrez izena emateko kanpaina aurkeztu dute 2017-2018 ikasturterako (ikastetxe publikoak eta itunpekoak), eta aurreko ikasturtearekin alderatuz dauden [onarpen-prozedurako](#) berrikuntza nagusien berri eman dute.

Otsailaren 13tik 17ra egingo den [kanpainak](#), berrikuntza nagusi modura, onarpen-eskaerak baloratzeko erabiltzen zen ikastetxeen aukerako puntu osagarria desagertzea ezartzen du, plazen eskaintza baino aldeztu aurretik izena emateko eskaera gehiago izaten diren ikastetxeei begira; haren bidez, eskaeren lehentasun-ordena puntuazio berdinarekin ebazten zen balorazioko lehentasunezko irizpideak aplikatu ondoren (hurrenkera honetan, ikastetxetan anai-arrebaren bat izatea, desgaitasuna, hautatutako ikastetxearen udalerrri berean bizitzea, familia-errenta eta familia ugariaren izaera): eta hura puntu erdiagatik ordezkatzeko etxetik ikastetxera dagoen distantziaren arabera.

Etxea ikastetxetik hurbil egotearen baremoa Iruñeko eta haren eraginpeko zonaldeko ikastetxeetan bakarrik aplikatuko da; izan ere, Tuteran eskola-komunitateak berak erabaki zuen, ikastetxe publikoen kokapena ikusirik, irizpide hori aplikatzeak berariazko beharrak dituzten ikasleen kontzentrazio-arazoak sortuko zituela.

Gainera, 2017-18 ikasturtean, Atzerriko Hizkuntzetan Ikasteko Programaren azterketa amaitu ondoren, ikastetxeei programan sartzeko aukera ematen zaie. Datorren ikasturtean programan sartzeko eskatu dutenek hura arautzen duen Foru Aginduan ezarritako baldintzen arabera, aurrematrikulan bere hezkuntza-eskaintzan programa hori barnean jasoko dute. Aurrematrikula-epea hasi baino lehen, programan sartu nahi duten ikastetxeek eskaera Departamentuari egin beharko diote otsailaren 13a baino lehen eskaini ahal izateko. Epe berarekin jakingo da, halaber, zer ikastetxek aukeratzen duten lanaldi jarraitua eskola-komunitatearekin aurrez adostu ondoren.

Hurbiltasun lineala

Aurrez izena emateko prozedura arautzen duen foru-aginduak

aipatzen duenez, irizpide osagarriaren aldaketaren xedea “eskolatze-prozesua hobetzea” da, zenbait ikastetxetan jadanik aplikatzen zen praktika bat orokortuz, eta familiek nahiz hezkuntza-komunitateak era positiboan hartu zutena.

Hala, irizpide osagarri bakar gisa ikastetxerako hurbiltasun linealaren kontzeptua ezartzen da. Hurbiltasun lineala esaten zaio “etxe eskatzailearen UTM koordinatuen eta lehen aukera gisa eskatutako ikastetxeko UTM koordinatuen artean kalkulaturako distantzia linealari”. Distantzia hori EDUCA eskolakudeaketako sisteman jasotako [geokokapeneko tresna](#)ren bidez finkatzen da eta, aldi berean, Nafarroako Lurralde Informazio Sisteman (SITNA) oinarrituta dago.

Urtero zehaztuko dira: hurbiltasun linealeko irizpidea aplikatuko duten udalerriak, irizpide hori erabiltzeko aintzat hartuko den gehieneko distantzia, bai eta zein irakaskuntza, etapa eta hezkuntza-mailatan hartuko diren kontuan ere. Irizpide hori lehen aukera gisa hautatutako ikastetxean bakarrik aplikatuko da.

Parametro horien arabera, gehienez 0,5 puntu emango da ondorengo kasu honetan: hurbiltasun linealagatik eskatzailearen etxea lehen aukera moduan hautatutako ikastetxetik, gehieneko gisa urtero ezarritako distantzia berera edo txikiagora dagoenean. Etxe eskatzailearen hurbiltasun hori eskaera egiten den urteko urtarilaren bata baino lehen egin beharko da.

D ereduaren eskaintza zonalde ez euskalduneari

Bestalde, euskara-irakaskuntzako (D eredu) eskaintzaren antolaketa berria ezagutzera eman da zonalde ez euskalduneko ikastetxe publikoetan, lehen ikasturteko esperientziaren ondoren, oraingoa, legezko aurreikuspen berri hori aplikatuz. Iaz D ereduari ikasi nahi zuten ikasleek eskari erreala ezagutzeko zain izan bazen ere eskaintza antolatzeko, datorren ikasturterako (2017-18) Hezkuntzak zonalde ez euskaldun guztian banatutako 14 ikastetxe publikoen zuzendaritzekin koordinatu du honako hau: bertako ikastetxeetan zabal daitezela aurrematrikulatik sortzen diren lineak.

D ereduaren eskaintza duten zonalde ez euskalduneko ikastetxe publikoen zerrenda baldin eta aurrez izena emateko hurrengo epe honetan behar besteko eskaria dagoela ikusten bada, dagoeneko irakaskuntza euskaraz eskaintzen duten honako lau zentro hauek osatuko dute: Caparrosoko “Virgen del Soto”; Lodosa “Ángel Martínez Baigorri”; Noain “San Miguel” eta Tafalla “Marqués de la Real Defensa”.

Gainera, aurreko zerrendari erreferentziazko beste hamar ikastetxe gehitzen zaizkie D ereduaren eskaintza emateko: Alloko “La Cruz”; Antzingo “San Fausto”; Castejongo “Dos de Mayo”; Cintruénigoko “Otero de Navascués”; Larragako “San Miguel”; Los Arcos “Santa María”; Mendigorriako “Julián María Espinal Olcoz”; Azkoien “Juan Bautista de Irujo”; Zangozako “Luis Gil”; eta Tuterako “Elvira España”.

Erreferentziazko ikastetxe horietako bakoitzari arreta emango dien udalerriak ere tasatu dira, ikastetxe bakoitza dagoen udalerriaz gain:

- Allo, “La Cruz” HLHIP: Deikaztelu, Arroitz, Morentin, Aberin, Barbarin, Lukin, Lerin.
- Ancín, “San Fausto” HLHIP: Murieta, Legaria, Oko, Abaigar, Olexoa eta Etaiu
- Caparrosa, “Virgen del Soto” HLHIP: Martzilla, Cadreira, Faltzes, Milagro, Villafranca, Zarrakaztelu, Melida, Murillo El Cuende, Murillo El Fruto, Santakara.
- Castejon, “Dos de Mayo” HLHIP: Valtierra, Arguedas.
- Cintruénigo, “Otero de Navascués” HLHIP: Corella, Fitero.
- Larraga, “San Miguel de Larraga” HLHIP: Berbintzana, Miranda Arga.
- Lodosa, “Ángel Martínez Baigorri” HLHIP: Sartaguda, Sesma, Mendabia, Elizagorria, Viana, Aguilar Kodeskoa, Aras, Bargota, Cabredo, Genevilla, Lapoblacion, Maraño, Azagra, Andosilla, Carcar, San Adrian.
- Los Arcos, “Santa María” HLHIP: Armañanzas, Azuelo, Desoio, El Busto, Esprontzedo, Mendaza,

Mirafuentes, Mues, Nazar, Piedramillera, Santsol, Sorlada, Torralba del Río, Torres del Río.

- Mendigorria, “Julián María Espinal Olcoz” HLHIP: Artaxoa.

- Noain, “San Miguel” HLHIP: Untzitibar, Ibargoiti, Beriain, Biurrun-Olkotz, Galar, Tebas-Muru Artederreta.

- Azkoien, “Juan Bautista de Irurzun” HLHIP: Funes.

- Zangoza, “Luis Gil” HLHIP: Eslaba, Ezporogi, Galipentzu, Xabier, Leatxe, Lerga, Liedena, Petilla de Aragón, Esa, Irunberri, Gazteluberri, Erromantzatua, Urraulbeiti, Aibar, Kaseda, Zare.

- Tafalla, “Marqués de la Real Defensa” HLHIP: Garinoain, Leotz, Oloritz, Orisoain, Puiu, San Martín Unx, Untzue, Barasoain, Garinoain, Beire, Erriberri, Pitillas, Uxue.

- Tuter, “Elvira España” HLHIP: Ablitas, Buñuel, Cascante, Barillas, Tulebras, Monteagudo, Murchante, Ribaforada, Cabanillas, Fustiñana, Fontellas, Cortes.

Hezkuntza-eskaintza honetan interesatutako familiei informazio zehatzagoa emateko asmoz, aurrez izena emateko epea baino lehenagoko datetan informazio-hitzaldiak antolatu dira 14 ikastetxe publiko horietan; bertan, ikastetxe bakoitzeko zuzendaritzako kideek eta Hezkuntza Departamentuko nahiz Euskarabideko teknikariek parte hartuko dute. Urtarrilaren 30ean hasiko diren hitzaldien behin betiko egutegia datozen egunetan garaiz jakinaraziko da.